



BASAURI

Udala · Ayuntamiento



Bandera
Berdea

KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA ÁREA DE POLÍTICA CULTURAL Y EUSKERA

0977 / 2017 DEKRETUA

DECRETO Nº 0977 / 2017

Data: 2017/03/16

Fecha: 16 /03/2017

Kultura-politika eta Euskara arloko diru-laguntzak emateko Oinarriak onartu ditu 2017ko otsailaren 27ko 0709/2017 Dekretuak —eta 2017ko martxoaren 14ko 51 zenbakidun BAOn argitaratu dira—.

Horren harira, Alkatetzak honako hau XEDATU DU, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21. artikulua eta indarreko gainerako legeriak emandako eskumenak baliatuta:

LEHENENGOA: «Euskara: Euskararen Nazioarteko Eguna Ikastetxeetan egindako Jarduerak», diru-laguntzarako gastuak baimentzea, jarraian adierazi bezalaxe:

Habiéndose aprobado las Bases que regulan la concesión de subvenciones en materia de Política Cultural y Euskera, por Decreto de la Alcaldía 0709/2017 el 27 de febrero de 2017, y publicado en el BOB nº 51 el 14 de marzo de 2017.

Desde esta Alcaldía y en virtud de las competencias que le otorga el artículo 21 de la Ley 7/85 Reguladora de las Bases de Régimen Local y demás legislación vigente se DISPONE lo siguiente:

PRIMERO: autorizar el gasto para la subvención «Euskara: Actividades Realizadas en Centros Escolares, Día Internacional del Euskera», conforme al siguiente detalle:

Partidaren deskribapena Descripción de la Partida	Partida	Erreferentzia	Eragiketa Zk. Nº Operación	Zenbatekoa Importe
Ikastetxeentzako diru-laguntza. EUSKARAREN GIZARTE SUSTAPENA. Subvención centros escolares. PROMOCION SOCIAL DEL EUSKERA.	71 3351 48176	22017000568	220170000818	4.500,00 €

BIGARRENA: «Euskara: Euskararen Nazioarteko Eguna Ikastetxeetan egindako Jarduerak 2017ko deialdia onestea, Euskararen Eguna Eranskinean ezarritakoaren arabera.


SEGUNDO: aprobar la convocatoria de la Subvención de Euskera: Actividades Realizadas en Centros Escolares, Día Internacional del Euskera de 2017, de acuerdo a lo especificado en el Anexo Día del Euskera adjunto.

HIRUGARRENA: xedatzea eskabideak aurkezteko epea 2017ko urriaren 17tik azaroaren 3ra izango dela.

TERCERO: establecer que el plazo para la presentación de solicitudes será desde el 17 de octubre hasta el 3 de noviembre de 2017.

LAUGARRENA: 2018ko urtarrilaren 31ko data ezartzea zuri-keta egiteko epemuga gisa.

CUARTO: establecer como fecha límite para la justificación el 31 de enero de 2018.



BOSGARRENA: Kultura-politika eta Euskara Arloko 2017ko diru-laguntzen deialdia argitaratu dadila, bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez, bai lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietako batean, baita Basauriko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere.

QUINTO: ordenar la publicación de la convocatoria para la concesión de las subvenciones del Área de Política Cultural y Euskera de 2017, en el Boletín Oficial de Bizkaia a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Basauri y en la web municipal.

Basauri, 2017ko martxoaren 16a

Basauri, 16 de marzo de 2017.

ALKATEA / EL ALCALDE



Sin. / Fdo. Andoni Busquet Elorrieta



ERANSKINA: EUSKARAREN EGUNA

Diru-laguntza lerroa	IKASTETXEETAN EUSKARA SUSTATZEKO JARDUERAK EGITEA ESKOLA-ORDUEN BARRUAN
Diruz laguntzeko kontzeptua	«EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA», IKASTETXEETAN EGINDAKO JARDUERAK
Aurrekontu partida	71 3351 48176
Partidaren deskribapena	Ikasteentxako diru-laguntza.
Zenbatekoa	4.500,00 €
Diru-laguntza emateko erregimena	NORGEHIAGOKA

1. HELBURUA:

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA ospatzeko jarduerak egitea sustatzea udalerriko ikastetxeetan. Jarduera horiek ikastetxeak berak antolatu beharko ditu, Udalak egun horretarako programatutako jarduerekin koordinatuta.

2. NORI ZUZENDUTA DAGOEN:

Udalerriko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeei; eta prestakuntza-zikloak ematen dituzten ikastetxeei. Era berean, eskabideak aurkeztu ditzakete Basauri udalerriko ikastetxe eta ikasketa-kooperatibetako gurasoen elkarteek (IGE).


Ikastetxe berean Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza badago, eskabide bi aurkeztu ahal izango dira, ikastetxe horiek baztertuta geratu ez daitezen. Egiaztatu beharko da, ordea, jarduerak desberdinak izango direla (zuzentzen zaizkien ikasleen arabera).

3. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK:

Ikastetxeek aurrera eramandako jardueretarako diru-laguntzak, hain zuzen ere, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA ospatzeko Udalak antolatutako egitarauan parte hartzeoak.

BAZTER UTZITAKOAK:

Basauriko Udaleko diru-laguntzen deialdiaren barruan, beste diru-laguntza lerro baten xede diren jarduerak.



4. DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Eskabide-orria aurkeztu beharko da, honako dokumentu hauekin batera:

- Jardueren proposamena (2017_NombreCentro_jarduerak_actividades.doc).
- Aurrekontua (2017_NombreCentro_aurrekontua_presupuesto.xls).
- Eskola Kontseiluaren aldez aurretiko txostena, non jasoko baita diruz lagundu beharreko jarduerak onetsi dituela.
- Ikastetxean euskararen erabilera normalizatzeko dagoen Plana.
- Hirugarrenaren fitxa.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

Eskabideak aurkezteko epea 2017ko urriaren 17tik azaroaren 3ra izango da.

6. BALORAZIO IRIZPIDEAK:

Jarduera burutzeko beharrezko materialerako diru-laguntza emango da: eskatzaile bakoitzari 300 €, gehienez. Diru-laguntza hau jasotzeko, ordea, egiaztatu beharko da aurkeztutako proiektua beharrezkoa dela jarduera aurrera eramateko.

7. ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Udal diru-laguntzak emateko Ordenantzaren 8. artikuluan ezarritakoak; bereziki, diru-laguntza eman duen organoaren aurrean egiaztatzea jarduera egin dela, eta diru-laguntzaz gozatzeko ezarritako helburua bete dela.

8. HIRUGARRENEN AZPIKONTRATATZEA:

Udal diru-laguntzak emateko Ordenantzaren 21. artikuluan ezarritako baldintzetan.

9. GEHIENEZKO ZENBATEKOA:

Diru-laguntza lerro honetan, gehienez ere, 4.500 € banatuko dira.

Erregistro-hurrenkeraren arabera izapidetuko dira eskabideak.

Partida agortuko balitz, eskabidea hurrengo ekitaldian ebatziko litzateke, eskabide berria aurkezteko beharrik gabe.